

Haritz kontalaria

Bazen behin Belkoaineko basoan bizi zen haritz zahar-zahar bat. Hosto pila bat edukitzen zituen udaberrian, baina neguan, bat ere ez. Ipuinak kontatzea izugarri gustatzen zitzaion eta 220 urte zituenek ehunaka ipuin zekizkien. Denak interesgarriak izan ohi ziren. A! eta oso inportantea !!! Kalitx izena zuen.

Kalitx, zuhaitz guztiak bezala, ez zen ibiltzen, eta hain zaharra zenez adarrak mugitzea ere asko kostatzen zitzaion. Hala ere, beti alai eta barrezka egoten zen. Katagorri pilo bat bizi zen bere enbor eta adarretan, txori arotzak ere bai eta inork ez zuen Kalitxen ipuin bakar bat ere galtzen. Bi arrazoirengatik : lehenengoa, Kalitxi gustatu egiten zitzaiolako besteek bere ipuinak entzutea, eta bigarrena, oso ipuin interesgarriak zirelako.

Katagorri kumeak oso nekatuta zeudenean Kalitxen ipuin interesgarriekin lo hartzen zuten eta katagorri amek eskertzeko, platanok, sagarrak, udareak, urrak, ezkurak etab. ematen zizkioten , nahiz eta Kalitxek ezin zituen gauza guztiak jan hortzak ere zahartuta zeuzkalako. Kalitxen frutarik gustukoenak udareak ziren eta horrexegatik katagorriek gehienetan udareak ematen zizkioten.

Egun batean Kalitxi ideia hau otu zitzaion: katagorriak Sorabilla auzora eta Andoainera joatea eta hango haurrei hurrengo goizean bere ipuinak entzutera joateko esatea. Katagorriak Andoainera joan eta hango haur guztiei esan zien, eta Sorabillakoei berdin. Umeak joango zirela esan zietenean katagorriek, hauek ahalik eta azkarren joan ziren Kalitxi esatera. Hau izugarri poztu zen eta esan zuen.

-Aupa!!! Etorriko dira, nik ipuin polit-politak kontatuko dizkiet,baina, tamalez laster ipuin guzti-guztiak bukatuko zaizkit.

Hurrengo egunean ume piloa bildu zen Kalitxen inguruan, eta honek ahuntz artean ibiltzen zen ardiaren ipuina kontatu zien. Hori zen zekien azkeneko ipuina! Hainbeste kontatu zituen bere bizitza guztian! Horrelaxe hasten zen:

Bazen behin Bakar izeneko ardi beltz bat eta eskalatzen oso-oso trebea zen, ahuntz bat bezain trebea. Ez zitzaion besteen atzetik joatea gustatzen ,baina, ardia zenez hori egin beharra zuen, bestela hau esaten zioten:

-Ardiak ez galtzeko elkarren atzetik ibiltzen gara, baina zu tuntuna zara eta ez duzu hori egiten!

Egun batean Bakar aspertu egin zen egunero hori entzuteaz, eta hortik alde egitea pentsatu zuen eta ahuntzak zeuden toki baketsu eta polit batera iritsi zen. Han, hasieran, ez zuten begi onez ikusi ,baina, handik ordu batera elkarrekin jolasten ari ziren denak. Zirku bat ere egin zuten eta oso famatuak egin ziren.

Handik bi urtera Bakar aker batekin maitemindu zen eta zorionez akerra berarekin. Akerrak, Bakarrik izena zuen eta nahiko itsusia zen, baina,oso-oso jatorra zen eta Bakarrek , hori hartzen zuen kontuan. A ze bikotea Bakar eta Bakarrik!!! Bi ume izan zituzten bat arra eta bestea emea. Arrari Txiki izena jarri zioten eta emeari ,berriz, Txipi. Txiki txikia, marroixka eta hanka zuriduna zen eta ardi itxura zuen. Txipi, berriz, Beltza zen eta belarri eta isats zuriak zituen, hau ahuntzen antzekoa zen. Biak oso-oso jatorrak ziren eta batez ere oso alaiak. Beti itxiturak saltoka pasatzen zituzten eta nahi zutena egiten zuten.

Urte askotan oso pozik bizitu ziren
elkarri lagunduz eta denak batera jolastuz.

Horrela bukatu zuen Kalitxek zekien
azkeneko ipuina. Hala ere, aurrerantzean ume
guztiak bisitan joaten zitzaizkion eta bere
itzalpean jolasten ziren.

HALA BAZAN ETA EZ BAZAN
SAR DADILA KALABAZAN ETA
ATERA DADILA BELKOAINGO PUNTAN!!!

Izaro Ibarzabal Uranga
10 urte